

MEDIKAMENTU DERMATOLOGIKOAK, OFTALMIKOAK ETA OTORRINOLARINGOLOGIKOAK

Erizaintzako Farmazia Klinikoa. OCW 2016
Argia Acarregui Garalde
Laura Saenz del Burgo Martinez



Aurkibidea

- Farmako dermatologikoak
 - ▣ Base motak
 - ▣ Printzipio eraginkorrak
 - ▣ Antiseptikoak
 - ▣ Larruazaleko ultzeretako aposituak
- Farmako oftalmologikoak
- Printzipio eraginkorrak
- Farmakoak otorrinolaringologian (ORL)

Farmako dermatologikoak

Farmako dermatologikoak

- Emateko erak: aho bidez, bide parenterala (bena barnetik), topikoa, bainuak, sendaketa oklusiboak, etab.
- Tratamendu topikoa edo sistemikoa (penfigoa, psoriasis, zelulitisa, baskulitisa)
- Prestakin topikoetan: basea + printzipio eraginkorra
- Baseak: lesioaren arabera
- Base desegokiekin: lesioa larriagotu edo printzipio eraginkorrak efekturik gabe gera daitezke
- Eragina jartzen den lekuan

Base motak

- Ezberdintasuna → hidratazio-gradua %100etik (likidoa) %0ra (hautsa)
- Likidoa: zuzenean eman edo bainuetan erabili
 - Lozioa: hauts disolbagarria edo hauts ez-disolbagarria esekiduran. Lesio hezeetan eta exudatiboetan. Behin eta berriro eman behar
 - Gela: eragin luzeagoa. Normalean alkoholak izaten ditu eta mukosak narritatzen ditu

Base motak

- Koipeak: likidoak (landare-olioak), likatsuak (jatorri minerala, parafina, baselina) edo solidoak (lanolina)
 - ▣ Crema: uretan edo beste likidotan emultsionatu den olioak. Lesio hezeetan. Erraz garbitzen da
 - ▣ Ukendua: base oliotsu batean emultsionatu den ura da. Itsaspen handiagoa. Lesio siku eta ez-ezkatatsuetan
 - ▣ Pomada: itsaspen solidoagoa duen koipea da, farmako bat darama eta larruazaleko hezetasuna zaintzen du. Lesio sikuetan eta ezkatatsuetan (ekzema sikuetan, psoriasian)

Base motak

- Hautsak: eragin xukatzaile, freskagarri, antipruriginoso eta babeslea. Larruazaleko tolesturetan erabiltzeko. Xixku-lesioak lehortzeko eraginkorrak: talkoa, zink sulfatoa
 - Oreak: hautsen eta koipeen arteko nahastura, berotasun-galera uzten dutenak eta tratatu beharreko aldea ondo mugatzen dutenak. Ultzeretan, psoriasian

Printzipio eraginkorrak

- Kortikoideak: antialergikoak, antiinflamatorioak
 - Pomadetan
 - Kremak eta gelak ez dira hain eraginkorrak
 - Lesioa oso hezea denean erabili
 - Indarra
 - Txikia (hidrokortisona)
 - Ertaina (triamzinolona)
 - Handia (betametasona)
 - Kontzentrazioaren arabera
 - Aurpegian, besapean eta izartean (xurgapen handia) eta umeetan: ahulenak
 - Eragin desiragaitzak: xurgapenaren arriskua, efektu sistemikoak, larruazalpeko atrofia
 - Ez erabili infekzioetan

Printzipio eraginkorrak

- Antibiotikoak
 - ▣ Orokorrean larruazaleko infekzioak era sistemikoan tratatu behar dira
 - ▣ Batzuek sentzibilizazioa sortzen dute eta aho bidez ematerakoan erreakzio alergikoak
 - ▣ Ez era topikoan: penizilinak edo sulfamidak (alergiak)
 - ▣ Gentamizina, neomizina, kloranfenikol, mupirozina

Printzipio eraginkorrak

- Antibirikoak
 - ▣ Aziklobir (Zovirax®)
 - ▣ Idoxiuridina
- Antifungikoak
 - ▣ Nistatina (Mycostatin®)
 - ▣ Mikonazol (Canesten®)
- Antiinflamatorioak
 - ▣ Diklofenako (AINE-ak)

Printzipio eraginkorrak

- Keratolitikoak
 - ▣ Ezkatatzea lortzeko
 - ▣ Akne, psoriasi edo garatxoetan
 - ▣ Azido salizilikoa, retinoideak (A bitaminaren deribatuak)
 - ▣ Azido zis-retinoikoa: aho bidez. Fetuaren malformazioak eragin ditzake
- Lehorgarriak
 - ▣ Eragin lokala, larruazalpeko proteinak prezipitatzeko dituzte: azala lehertzeko
 - ▣ Zink eta kobre sulfatoa
 - ▣ Herpes zosterrean xixkuak lehertzeko

Printzipio eraginkorrak

- Babesleak
 - Barrera moduan (krema edo lozioa)
 - Larruazala A eta B erradiazio ultramoreetatik babesteko substantziak: azido aminobenzoikoa, titanio dioxidoa
 - Eguzki-babes faktoreak (FPS): zenbat ordu egon gaitezke eguzkitan (babeslea jarrita), babeslerik gabe egongo bagina agertuko liratekeen efektu berdinak sufritzeko. FPS ondorengo araberako da:
 - Azal mota
 - Babesle kantitatea
 - Erabilera maiztasuna
 - Egiten den aktibitatea: igeri egiterakoan zerbait galtzen da
 - Zonaldea-erradiazioen indarra / momentua

Printzipio eraginkorrak

- Nitroglizerina
 - ▣ Gela: Solinitrina[®] edo txaplatetan: Nitroderm TTS[®] zonalde prekordialean jartzeko
 - ▣ Eragin desiragaitzak: nitroglizerinaren berdinak
- Hormonak
 - ▣ Estrogenoak, menopausian. Antisorgailuak
- Analgesikoak
 - ▣ Fentanilo txaplata transdermikoetan, 72 orduko iraupenarekin

Printzipio eraginkorrak

Ez eman antihistaminikorik bide topikotik:
aho bidez baino hipersentiberatasun
handiagoa
eta eraginkortasun txikiagoa

Antiseptikoak

- Topikoki, ehun bizian mikroorganismoen hazkuntza inhibitu edo mikroorganismoak txikitu
- Efektu azkarrak, espektro antimikrobiano zabala, iraupen luzea eta ez dira kaltegarriak izan behar
- Beharrezkoak: infekzio kirurgikoak ekiditeko edo gaixoaren zauri eta mukosak azalean dauden mikroorganismoetatik babesteko, batez ere immunodeprimituetan

Antiseptikoak

- Klorhexidina (Hibitane[®]): azal osasuntsuan (%2), mukosetan, azaleko zonalde kirurgikoetan, erditze ondoko antiseptiko moduan (%0,5), aho-antiseptikoa (%0,1) eta garbiketa kirurgikoan. Soluzioa, krema, xaboiak, etab. Azaleko alergia
- Iodoa: azaleko alergiaren arriskua, narritagarria
- Povidona iodatua (Betadine[®]): azal osasuntsuan, azaleko zonalde kirurgikoetan eta garbiketa kirurgikoan eta baginalean. Ez da hain narritagarria. Azaleko alergiaren arriskua

Antiseptikoak

- %70 alkohola: azal osasuntsuan. Ez da hain indartsua. Deshidratazioa eragiten du, narritagarria
- Ur oxigenatua: ez da oso indartsua. Zauri zikinetan, mikroorganismo anaerobiek eragindako infekzioak agertzeko arriskua dagoenean
- Merkurokromoa: ez da erabili behar, eraginkortasun txikia

Antiseptikoak

- Pobidona iodatua edo klorhexidina erabili
- Ez dira soluzio antiseptikoak nahasi behar
- Itxita gorde
- Hobe monodosiak erabili

Desinfektatzaileak-esterilizazioa

- Tresneria sanitarioetako (ez bizia) mikroorganismoak suntsitzeko
- Desinfekzioa: germen patogenoak txikitzeko
- Esterilizazioa: mikroorganismo gehiago eta esporak
- Tresneria kirurgikoak → esterilizazioa: ehun esterila edo odol-hodiak ukitzeko
- Zauriak dituen mukosa edo azala ukituko duen tresneriak → desinfekzioa

Desinfektatzaileak-esterilizazioa

- Esterilizazioa:
 - ▣ Beroa (hezea edo sikua)
 - ▣ Kimikoa: azido perazetikoa, glutaraldehidoa, hidrogeno peroxidoa
 - ▣ Erradiazioa
 - ▣ Esposizio-denbora luzea
- Desinfekzioa:
 - ▣ Azido perazetikoa, glutaraldehidoa, hidrogeno peroxidoa, kloroa, alkohola, deribatu fenolikoak
 - ▣ Esposizio-denbora laburragoak

Larruazaleko ultzeretako aposituak

- Azaleko ultzeren sendaketa lehorra (zarakarrarekin) zailagoa da ehuna desbitalizatuta dagoenean
- Giro hezeak ehun konjuntiboaren zelulen ugalketa bultzatzen du eta fibroblastoak erraz mugi daitezke dermisaren exudatu serosoaren gainetik
- Honek ultzeraren orbantze-abiadura handitzen du
- Apositu oklusiboak erabiltzen dira, mintz iragazkorrarekin

Larruazaleko ultzeretako aposituak

- Apositu pasiboak
 - ▣ Gasak

- Apositu bioaktiboak
 - ▣ Hidrogelak: oxigenoa eta ura pasatzen dira baina ez bakterioak
 - ▣ Hidrokoloideak: 3 geruza: kanpokoak ez da iragazkorra. Mina pixka bat arintzen du baina usain txarra eragin dezake barneko geruza zauriaren exudatua ukitzerakoan fluidifikatzen delako
 - ▣ Alginato kaltzikoa: alga arreetatik lortzen da. Ezaugarri desbridante eta xurgatzeko gaitasun handia

Farmako oftalmologikoak

Farmako oftalmologikoak

- Tratamendu topikoak, sistemikoak, konjuntiba-azpiko injekzioak, bitreobarnekoak edo erretrobulbarrak (anestesia lokala-erregionala)
- BASEAK
 - Kolirioa: soluzio likidoak, zaku konjuntiboan 2-4 orduero emateko. Behin ireki direla ez dira hilabete bat baino gehiago erabili behar
 - Pomada: eragina luzeago mantentzeko baina ikusmenaren zolitasuna jaisten du; gauez edo begia itxita

Farmako oftalmologikoak.

Eraginak

- Kikloplejikoak: muskulu ziliarraren paralisia eragiten dutenez, ezin dira gauzak enfokatu kristalinoaren forma aldatzea ezinezkoa baita. Pazienteari abisatu lauso ikusiko duela (antikolinergikoekin: atropina, homatropina)
- Midriatikoa
 - Begi-ninia zabaltzeko, begiaren hondoa ikusteko eta iridoziklitisean itsaspenak prebenitzeko
 - Antikolinergikoek kolirioan (homatropinak eta atropinak) midriasia eta kiklopejia
 - Alfa adrenergikoek (fenilefrina) midriasia sortzen dute baina ziklopejia barik
 - Guztiekin: glaukoma agertzeko arriskua

Farmako oftalmologikoak.

Eraginak

- Miotikoak:
 - ▣ Begi-ninia uzkuratzen dute
 - ▣ Pilocarpina kolirioan (parasinpatikomimetikoa) glaukoman

Printzipio eraginkorrak

- Kortikoideak
 - ▣ Dexametasona edo betametasona
 - ▣ Inflamazioa edo alergia dagoenean: ubeitisa, koroiditisa, eskleritisa, konjuntibitis alergikoa
 - ▣ Katarata eta glaukoma eragin ditzakete
- Antibiotikoak
 - ▣ Tetrziklina, gentamizina, kloranfenikol
- Anestesikoak
 - ▣ Benzokaina
 - ▣ Gutxi erabili, deshidratazioa sortzen dutelako eta kornean ultzerak agerrarazi ditzaketelako

Printzipio eraginkorrak

- Hodi-uzkurtzaileak
 - ▣ Fenilefrina
 - ▣ Prozesu kongestiboetan: denbora luze ez erabili
- Antiglaukomak
 - ▣ Begibarneko presioa jaisteko
 - ▣ Glaukoman
 - ▣ Timolol (Timoftol[®]) → betablokeatzailea
 - ▣ Latanoprost (Xalatan[®]) → PGaren antzekoa

Printzipio eraginkorrak

- Antibirikoak
 - ▣ Aziklobir
- Antiinflamatorioak
 - ▣ Diklofenakoa
- Malko artifizialak
 - ▣ Azukreen soluzio isotonikoa: hidroximetilzelulosa

Farmako oftalmologikoak

Inoiz ez dira begietarako espezifikoki eginda ez dauden farmakoak begietan eman behar

Batzuetan ez da prestakin berdina bi begietan ematen

Farmakoak ORL-an

Farmakoak ORL-an

- Tanta otologikoak: gorputz-tenperaturan egon behar erreakzio bertiginosoak ekiditeko
- Base oliotsua + printzipio eraginkorrak:
 - ▣ Antibiotikoak otitisak tratatzeko
 - ▣ Analgesikoak: benzokaina. Ez dira oso eraginkorrak. Hobe bide sistemikoa erabiltzea
 - ▣ Antizerumen-substantziak: laurilsulfato sodikoa edo bikarbonatoa

Farmakoak ORL-an

- Sudur-hodietako gaixotasun ohikoena → rinitisa: kongestioa eta buxadura
- Sudur-deskongestionatzaileak
 - ▣ Alfa-adrenergikoak (tantak): efedrina, fenilefrina
 - ▣ Errebote-efektua. Ez 5 egun baino luzeago erabili
 - ▣ Erabilera kronikoak mukosaren atrofia eragiten du
- Kortikoideak: rinitis alergikoetan
- Batzuetan sudur-bidea erabiltzen da eragin sistemikoa duten farmakoak emateko (kaltzitonina)

Farmakoak ORL-an

- Faringearen tratamendu topikoetan
 - Gargarak: indikatzen den denbora mantendu (5-10 minutu), faringe osora hedatu eta ez egin bakarrik ahoan
- Faringoamigdalitis askok eratorri birikoa daukate: ez erabili antibiotikorik